

Bilboko Itsasmuseumen zabalgunean jarriko diren edukiontzietan esku hartzeko lehiaketa artistikoa (10. edizioa)

Ekimenaren sustatzaileak dira Bilboko Itsasmuseum, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatea eta Aurtenetxea Containers enpresa. Aukeratutako proiektua urtebetez egongo da ikusgai Itsasmuseumeko dikeen alboan, ikusgarritasun handia eskaintzen duen Bilboko toki pribilegiatuan.

Esku hartzea Bilboko Itsasmuseum-eko zabalgunean

Merkantziak itsasoz garraiatzeko erabili ohi diren **industria edukiontziekin** proposamen bat egitea da helburua. Edukiontziak Euskalduna zubiak eta itsasadarraren bi ertzek osatzen duten hiri anfiteatro guztitik ikusi ahal izango dira.

Hiru edukiontzi dauzkagu: handi bi eta txiki bat.

Bakarrik bi edukiontzi erabilia egingo diren esku hartzeak ere aurkez daitezke, edozein modutan konbinatuta (bi handi, edo handi bat eta txiki bat).

- Edukiontzi handiaren neurriak: 6 x 2,5 x 2,5 m.
- Edukiontzi txikiaren neurriak: 3 x 2,5 x 2,5 m.



"Izena daukagu", 2021.
Idoia Leache.



"#lanbikaina", 2019.
Laura Martínez Martín.



“Plastikozko itsasoak”, 2018
María Acuña.



“El camino de la sirga”, 2017.
Xabier Dobarán eta María de Viana.

2023/2024 ikasturtean Arte Ederren Fakultatean matrikulatutako ikasle guztiak deitzen ditugu parte hartzera edukiontzia euskarri gisa erabiliko dituen proposamen iragankor bat aukeratzeko lehiaketan. Esku hartzea amaitu ondoren, lehen zegoen bezala geratuko da tokia.

Proposamenetan planteatu beharko dira edukiontzia muntatzeko soluzioak, eta horietan esku hartzeko aukera egongo da. Esku hartzeak, diren modukoak direla (piktorikoak, eskultorikoak, ikus-entzunezkoak, performatiboak, etab.), edukiontzien kanpoko aldean egin beharko dira nahitaez.

Proposamenaren arabera, edukiontzia kolore baten margotuta entregatu daitezke.

Aurtenetxea Containers arduratuko da edukiontzia muntatzeaz, garraiatzeaz eta behar bezala instalatzeaz, eta segurtasuneko neurriak bermatuko ditu.

Edukiontzietan esku hartzeko aukera egongo da, bai edukiontzia Bilboko Itsasmuseumeko zabalgunean jarri baino lehenago, bai beranduago.

Kontuan hartuko da esku hartzeek lekuaren testuinguruarekin zerikusia izatea, hau da, Itsasmuseumeko zabalgunearekin. Hortaz, gaiak izan daitezke Bilboko itsasadarra, itsasadarren leheneratze lanak eta hiriarekiko lotura, garai bateko portua, itsas bidaiak eta abar.



"Paperezko itsasontzia", 2016.
Álvaro Aroca.



"Contenido contenido", 2015.
Juan Malk.

Sariaren zenbatekoa:

1.500€, aukeratuko den proposamen bakarrarentzat.

(Zenbateko horren barruan sartzen dira laguntza poltsa eta produktioko gastuak).

Proiektuak banaka edo taldeka egin ahal izango dira, kontuan hartuta zenbatekoa proiektuko emango dela, eta ez parte hartzaile bakoitzeko.

Bestalde, hautatutako proiektuaren egileak/egileek konpromisoa hartuko du/dute jarduera osagarriren bat egiteko, pieza aktibatzeke, esku hartzea instalatuta dagoen bitartean, epaimahaiak beharrezkotzat joz gero.

Datak:

Urtarrilak 15: proposamenak aurkeztea.

Urtarrilak 30: aukeratutako proposamenen berri ematea.

Proposamena gauzatzea: 2024ko martxoko lehen astea.

Martxoak 22: esku hartzearen inaugurazioa.

Proiektuaren iraupena: sei hilabetetik urtebetera bitartean.

Proposamenak:

Dosierretan aurkeztu beharrekoa:

- Izen-abizenak, helbide osoa eta harremanetan jartzeko datuak (posta elektronikoa eta telefonoa).
- CV laburra
- Aurretik egindako lanei buruzko portfolioa (gehienez, 10 irudi).
- Esku hartzearen proposamena eta aurrekontua.

Euskarri digitalean (PDF formatuan) bidali beharko dira, gehienez 5 Mb izango dituzten artxiboetan, honako helbide elektroniko honetara:
ecultural.bellasartes@ehu.eus

Informazio gehiago: ecultural.bellasartes@ehu.eus

Lehiaketan parte hartzeak berez dakar oinarriak onartzea eta betetzea.

Oharra:

Parte hartzaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak "Esku hartzea Bilboko Itsasmuseumeko zabalgunean" izeneko UPV/EHUren fitxategi baten sartzeko, deialdiaren onuradunak aukeratzeko eta horien jarraipena egiteko sortuko dena. Datuak horretarako izango direla jakinarazten zaio parte hartzaileari, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 5. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Jakinarazten diogu, halaber, datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko edo horien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakeela. Horretarako UPV/EHUko DBLO segurtasunaren arduradunari idatzi bat igorri behar dio honako helbide honetara: UPV/EHU – Errektoregoa – Sarriena auzoa, z.g. 48940 Leioa (Bizkaia). Idazkiari bere identitatea egiaztatzeko dokumentuaren kopia ere erantsi behar dio. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUren Arautegia kontsultatu nahi izanez gero, interneteko helbide honetara jo dezake: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/babestu>.